

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EIBARKO UDALAREN 2016-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Joan den otsailaren 21ean Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu du Eibarko Udalaren ekonomia-finantza kudeaketaren fiskalizazio txostena, bere tokiko hiru erakunde autonomoena (Kirolaren Udal Patronatua, San Andres Fundazio Publikoa eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskola Publikoaren Patronatua) eta Inmobiliaria Municipal Eibarresa, SA sozietate publikoarena, 2016ko ekitaldiari buruzkoa.

2016ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du, nahiz zenbait kontularitzako doiketa atzeman dituen, Udalaren Diruzaintzako Geldikina 490 mila euroan gehitu araziko luketenak, eta beste zenbait salbuespen, Ibilgetuko saldoetan eragina dutenak (Udala eta San Andres fundazio publikoa). Kontuek, gainera, ez dute auziek eragindako kontingentzietarako zuzkidurarik jasotzen.

HKEEk fiskalizazio-gai izan duen Kontu Orokorraren egoera finantzarioa aztertu du. Udalak eskuratzen duen aurrezki garbi positiboak kaudimen ekonomikoko egoeran jartzen du, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideak dituela eta zorpetu beharrik izan gabe, etorkizuneko inbertsioei berezko baliabideekin aurre egiteko moduan.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, 2016an aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela.

Udalak eta tokiko erakunde autonomoek zuzentasunez **bete dute** 2016ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**.